

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Urtean Zeharreko 28. Igandea

2009 Urriak 11 (B urtea)

Patxi Otamendi

Jakinduria 7, 7-11

Hebertarrei 4, 12-13

Markos 10, 17-30

- Aurreko igandetean bezala, Jerusalemgo norabidea hartu du Jesusek eta tartean irakaspen batzuk uzten ditu. Horrelako “bide irakaspenak” hiru ebanjelariak azaltzen dituzte: Mateo, Lukas eta Markosek. Hiru horietan Maisua jada Galileatik abiatua da. Lukas da bideko pasarte gehien agertzen duena. Orain Jesus gehiago dirudi irakasle, ekintzalari edo mirari egile baino.
- Joandako igandean dibortzioaz mintzatu bazen, gaurkoan dirua eta aberastasunei buruz arituko da. Ez da ondasunei buruz mintzo den aldi bakarra izango: aberatsa eta Lazaro behartsua, eta zenbait parabolatan agertzen da diru edo botere-gosea.

Joandako igandean bezala, ikasleak txunditurik geratuko dira Maisuak irakatsitakoaz.

- Badirudi kontalariari ez zaiola asko axola nor den., ez baitigu aberats honen izenik ematen. Ziur aski garai hartako elitekoa izango zen: fariseua, legelaria edo idazlaria. Lukasen ebanjelioan lege zaindaria zela aipatzen da. Baliteke, beraz, fariseua izatea. Fariseuak diruzalatasunetik nahiko hurbil baitzenbiltzan. Behintzat bere burua zintzotzat aurkezten du, zera dionez “aginduak gaztetandik bete ditut”. Agian ez zen gaztea.
- Jesusengana korrika hurbiltzen da, eta belaunikatzen. Gogo bizia du. Sinesmenaren bidean badira hastapenetan Jaunaren jarraipenean sekulako zaletasunaz abiatu eta gero bidea uzten dutenak.

“Maisu on” deitzen dio, baina Maisuak ez dio horri garrantzirik ematen. Jendearen jelsia ez pizteko? Agian, trukean Maisuak tratu ona emango ziolako jukutria? Baliteke Jesusek zera adierazi nahi izatea: ez zaitez Nigan geratu, joan Jainkoagana. Bera bai dela Ona.

- Aberatsak Maisuari zuzentzen dion galdera funtsezko gaia zen giro hartan: *zer egin behar dut betiereko bizia irabaz dezadan?*

Jesusen erantzunak Hamar Aginduak aipatzen ditu. Agindu horiek bi zati dituzte: lehenengoan Jainkoarekiko betebeharrak xehatzen dira; bigarrenetan besteekiko harremanak. *Ez hil, bikoteari iruzurrik ez, ez lapurtu, ez gezurretan ibili, eta gurasoak goretsi.* Bigarren motako aginduotaz mintzo zaio, besteekiko egin beharrekoaz hain zuzen.

- Aberatsak dio ordura arte zinez zintzoa izan dela betebeharrak guztietan. Beste ebanjelarietan ez bezala, Markosek dio Jesusek maitasunez begiratu ziola. Begirune horrek ez du Maisua oztopatuko aberatsari zerbaite falta zaion argitzeko unean.

Ondoren, egiteko zer geratzen esaten dio: behartsuei beretik ematea. Gizon hura zuzena zen, ez zion inori kalterik egiten, baina ez zuen besteekin bizitza partekatzen. Ezta aldeko ekintza positiborik egiten. Hamar Aginduetatik haratago joateko bidegurutzea eta erronka jartzen dio Maisuak. Agindu haiek besteena bakean uztea eskatzen baitzuten, baina ez zuzenki laguntzea.

Zer falta zaigu guri? Zertan dugu gehiago emateko, sortzeko, laguntzeko?